

# TRINORI bihotzez

1

Trino, bertso xume batzuk  
behar dizkiagu jarri  
gizon txiki handi baten  
ekarpenen laudagarri.  
Bertsolari eskolaren  
sortzaile eta euskarri,  
zenbat poz, zenbat une on,  
kopla zahar zein bertso barri!  
Zaharretik gazteenera  
aipatu diagu sarri,  
Trino, heu haizela, izan,  
denontzat eredugarri.  
Mukur gainera igota  
egin dezagun aldarri  
hire eskola dugula  
bihotz barruan ezarri!

2

Azkoititik etorrita  
Getxon hartuta ostatu,  
laster egin hintzen, Trino,  
euskal giroan kokatu.  
Andoni ezagututa  
a zer para zen batu!  
Zuon bion ibilerak  
ezin inola zenbatu!  
Gero bertsotan hasita  
euskaldunak inguratu;  
hik denei esaten hien,  
«hasi ta altu kantatu!».  
Beti umore alaian,  
beti errondak pagatu,  
halaxe egin gintuan  
hirekin enamoratu.

3

Lanean *makina* hintzen  
alemanekin tratuan;  
bisitan zetozenean,  
utzi hemen ta batu han.  
Gero bertsotara pozik  
oso itxura santuan,  
ez huen askorik behar  
hasteko bertso kantuan.  
Sinismena izan huen  
gure aurreramentuan:  
bertso bat bota genian  
enegarren intentuan!  
Fokua jarri dezagun  
hire helburu lortuan:  
haziak erein hituen  
bertsogintzaren ortuan.

4

Bertso epailearena  
ezin esan barik utzi,  
puntuak bistan emanaz,  
honi asko, hari gutxi.  
Presioa bazegoan,  
baina hi ez hintzen hautsi,  
gainera epaile lana  
gero higuin erakutsi.  
Beti garrantzia kenduz  
harrotutako\_hainbat hautsi,  
beti helduleku bila  
ez zenean zeri eutsi.  
Trino, hire modukoak  
asko ez dituk ikusi:  
hire gotorrean samur,  
hire txikian nagusi.

5

Parranda lagun bezala  
etzegoan hilakorik!  
Barrua eta basoak  
husten hituen osorik.  
Bafle ozenekin lehian  
botatzen huen bertsorik,  
tabernak ixten hituen  
itxi gaberik ahorik.  
Hire inguruan inoiz  
ez huen falta tragorik,  
ezta basoa eskuan  
bertsotarako gogorik.  
Bertso giro *extreme* horrek  
utzi zigun arrastorik:  
ez da mundura jaio gu  
isiltzeko modukorik!

6

Kontatu ditugu, bada,  
kontatzeko modukoak,  
nahiz eta gehiago dauden  
dibertigarri askoak.  
Hark bertsoa bizi zuen  
ta hura bizi bertsoak;  
maitemin horrexetatik  
heldu gara ondokoak.  
Trino, uneok ez dituk  
guretzako erosoak,  
baina izan nahi diagu  
hi bezain animosoak.  
Hi eta Andonigatik  
altxa ditzagun basoak:  
gora Trino, gora Andoni,  
gure bertso gurasoak!!!

## GEROAREN BEROA

1

Agurtzen zaitut, neska-mutiko  
bertso eskolan hasia,  
agur ta gora zuen arteko  
giro alai berezia.  
Harritzekoa ta pozgarria  
zuen gogo ta grazia...  
lur samurrean jausi zen, nonbait,  
guk botatako hazia!

2

Hogei bat urte badira ia,  
benetan edo itxuran,  
eskola sortu ta hasi ginela  
bertsoa zabaldu guran.  
Orain ikusiz gazteon martxa  
ordukoaren loturan,  
iruditzen zait nere bizitzan  
zerbait egin ote dudan.

3

Erdalgune bat euskalgirotzen  
umoretsu eta alai,  
eskolak hortan jarrai dezala,  
besterik ez genuke nahi.  
Zuek zarete gure geroa,  
gure beroa ere bai.  
Holako gero bero batekin  
lo egin liteke lasai!

*Trino Azkoitia Azpitarte*